

Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratzeko jarraibideak

KESen bidez (komunikazio elektronikoko segurua) bidali behar da, eta, horretarako, ziurtagiri digitala eduki eta KESen alta emana egon behar da.

Esteka honen bidez eska dezakezu KESen alta emateko:

<https://hacienda.navarra.es/ces/CESProcedimientoRegistro.asp>

Alta emana bazaude, bete urrats hauek:

1. Sartu bidalketa-inprimakira web-orri honetatik:

<https://hacienda.navarra.es/ces/>

2. Sistemak ziurtagiri elektronikoa berresteko eskatuko dizu.

3. Hautatu *Ordezkatzen dudanetako bat aukeratu nahi dut* (ez bidali zure izenean).

4. Aukeratu Nafarroako Aldizkari Ofizialaren kanala.

5. Bete KESen formularioa, eta *txertatu* botoitik, erantsi argitaratu nahi duzun dokumentua formatu editagarrian (ez PDF formatuan).

6. Testua gaztelaniaz eta euskaraz baduzu, erantsi dokumentu bana hizkuntza bakoitzeko.

7. Informazio osagarria duten dokumentuak argitaratu behar badira (adibidez, planoak PDF formatuan edo kalkulu-orriak), erantsi horiek ere.

Sistemak 10 MB arteko dokumentuak onartzen ditu. Dokumentu handiagoak bidali behar badituzu, amaitu KESen bidezko bidalketa, eta erregistro-zenbaki bat esleituko zaizu. Ondoren, bidali dokumentu handia posta elektronikoz bon@navarra.es helbidera, KESen erregistro-zenbakia adierazita.

Salbuespen gisa, dokumentuak posta elektronikoz bidali ahal izanen dira bon@navarra.es helbidera, ziurtagiri digitalarekin sinatutako [eskabide](#)arekin batera.